



## MUSIKA-IKASKETA PROFESIONALETARA SARTZEKO PROBAK

### INTERPRETAZIOA ETA ALDERDI TEKNIKOAK

### GITARRA ELEKTRIKOA

#### 1. MAILA

|   |  |
|---|--|
| ARIKETA TEKNIKOAK   | <p><b>Akonpainamendu ariketa:</b> Froga honek akordeen menperaketa neurtzen du, baita zentzu erritmikoa eta musika modernoaren eremuaren baitan erabiliak diren hainbat estilotako hizkuntza musikalen ezagutza. Hautagaiak akonpainamenduak burutu beharko ditu tribunalak adierazitako akorde progresio eta estiloetan oinarrituta. Honetarako tribunalak froga burutzerako momentuan hainbat estiloetan grabatutako audio baseak (rock, pop, bossa nova, blues, funk...) hornituko ditu, halaber, dagozkien amerikar zifratua duten gidoiekin batera.</p>       |
|   | <p><b>Ebaluaketa:</b> Balioztatuko dira bai zifratu baten aurrean akonpainamenduak inprobisatzeko gaitasuna, zein jo beharreko audioarekiko hautagaiak erakutsitako egokipen estilistiko, erritmiko nahiz tinbrikoa. Interpretazioarekiko doitasun metriko eta aniztasunak kontuan hartuko dira.</p>   |
|   | <p><i>Froga teknikoetarako akordeak Triadak diapasoia-aren posizio ezberdinetan, Zejilak, zazpidun dominante eta zazpidun minorra(gutxienez bi forma desberdinak, adibidez 6. eta 5. harietan erroa duten zejilak.. Pop eta Rock erritmo arruntak kortxeadun zatiketaz, hainbat estilotako figura erritmiko arruntak: Reggae, Ska, Rock &amp; Roll, Blues bitarra eta Shuffle-a. Akonpainamendu zarrastak edota arpegioak erabiliz. "Mute" diapasoia-aren eskuz eta plektroaren eskuz(Palm mute). Zifratuak derrigorrezko erritmo zehatz bat eduki dezake.</i></p> |
|   | <p><b>Inprobisazio ariketa:</b> Froga honek eskala eta arpegioen ezagutza neurtzen du, baita zentzu melodikoa, musikalitatea, inprobisaziorako gaitasuna eta musika modernoaren eremuaren baitan erabiliak diren hainbat estilotako hizkuntza musikalen ezagutza. Hautagaiak inprobisazio bat burutu beharko du zifratu amerikarra duen akorde progresio batean eta honi dagokion audio basean zehar, tribunalak frogaren unean hornituko duena.</p>   |
|   | <p><b>Ebaluaketa:</b> Aintzat hartuko dira eskala eta arpegioen ezagutza, zifratu baten aurrean erakutsitako inprobisatzeko gaitasuna, hala nola hautagaiak jo beharreko akonpainamendu pistaren gain erakutsitako egokitasun tinbriko, estilistiko eta erritmikoa. Kontuan hartuko dira bai fraseatzearen zentzutasuna nahiz espresio eta artikulazio teknikak.</p>   |
| <p><i>Inprobisazio ariketa: Eskala pentatonikoak honako tonuetan: C, A, E, G, F. Eskala maiorra C, F, eta G tonuetan bost posizio ezberdinetan gutxienez. Inprobisazioak burutzeko erabiliko diren akorde progresioak</i></p> |  |



|                       |  |
|-----------------------|--|
|                       | <p><i>diatonikoak edota blues progresioak izango dira. Aintzakotzat hartuko dira espresio eta azentuatze teknika ezberdinen erablipena(ligatuak, vibratoa, ixilguneak, “bending”...) baita dagozkien arpegioenak ere.</i></p> <p><b>Bat-bateko irakurketa:</b> Hautagaiak tribunalak proposatutako partitura baten bat-bateko irakurketa burutu beharko du.</p> <p><b>Ebaluaketa:</b> Aintzat hartuko da partiturak bat-batean irakurtzeko gaitasuna. Kontuan hartuko dira bai interpretazioaren doitasuna baita pultso irmoa mantentzeko gaitasuna ere.</p> <p><b>Bat-bateko irakurketa ariketa:</b> <i>Zailtasun maila: gehienez bi alterazio armaduran, 1. posizioan notak, zuri, beltz, eta kortxea figuraziotan zein haien isilunetaz, diatoniko triada batzuk, baita alterazio akzidentalak ere. Adibide moduan, zailtasunaren maila William Leavitt-en “Método moderno de guitarra, volumen 1” liburuan dauden estudioak (36 orrialde arte).</i></p>  |
| <p>INTERPRETAZIOA</p> | <p><b>Interpretazioa:</b> Hautagai bakoitzak estilo ezberdinetako bi obra aurkeztuko ditu (Rock, Blues, Jazz...) tribunalaren aukeran hauetako bat interpretatu beharko duelarik. Grabatutako baseak erabil ahal izango dira hautagaiak formatu digitalean ekarrita. Halaber, bere musiko laguntzaileak ekar ahal izango ditu horrela nahi izanez gero. Kasu honetan matrikula inprimakian egoera hau adierazi behar da.</p> <p><b>Ebaluaketa:</b> Aintzat hartuko dira aurkeztutako obren zailtasun eta aniztasun estilistikoa eta, halaber, egokipen estilistiko eta tinbrikoa. Inprobisazioa barne duten obretan kontuan hartuko dira bai honen originaltasuna nahiz egokipen estilistiko eta armonikoa.</p> <p><u>Interpretazio frogarako obra orientagarrien zerrenda:</u></p> <p><b>POP-ROCK:</b> Chuck Berry: Johnny B. Goode<br/>     AC/DC: Highway to hell<br/>     You shook me all night long<br/>     Police: Roxanne<br/>     Lennon /McCartney: Get Back</p> <p><b>BLUES:</b> B.B. King: The thrill is gone<br/>     Freddie King: Hide Away</p> <p><b>JAZZ:</b> Miles Davis: Freddie the freeloader<br/>     Jamey Aebersold: Slow blues in F<br/>     Slow blues in G</p> |



## 2. MAILA

|                   |  |
|-------------------|--|
| ARIKETA TEKNIKOAK | <p><b>Akonpainamendu ariketa:</b> Froga honek akordeen menperaketa neurtzen du, baita zentzu erritmikoa eta musika modernoaren eremuaren baitan erabiliak diren hainbat estilotako hizkuntza musikalen ezagutza. Hautagaiak akonpainamenduak burutu beharko ditu tribunalak adierazitako akorde progresio eta estiloetan oinarrituta. Honetarako tribunalak froga burutzerako momentuan hainbat estiloetan grabatutako audio baseak (rock, pop, bossa nova, blues, funk...) hornituko ditu, orobat, dagozkien amerikar zifratua duten gidoiekin batera.</p> <p><b>Ebaluaketa:</b> Balioztatuko dira bai zifratu baten aurrean akonpainamenduak inprobisatzeko gaitasuna, zein jo beharreko audioarekiko hautagaiak erakutsitako egokipen estilistiko, erritmiko nahiz tinbrikoa. Interpretazioarekiko doitasun metrikoa eta aniztasuna kontuan hartuko dira.</p>   |
|                   | <p><i>Triada eta koatriada akordeak diapasoiairen posizio ezberdinetan, zejilak, "novena" duen akordeak. Pop eta Rock erritmo arruntak kortxeadun zatiketaz, hainbat estilotako figura erritmiko arruntak: Soul, Reggae, Ska, Rock &amp; Roll, Blues bitarra eta Shuffle-a, Funk semikortxea zatiketaz, Swing. Akonpainamendu zarrastrak edota arpegioak erabiliz. "Mute" diapasoiairen eskuz eta plektroaren eskuz(Palm mute). Zifratuak derrigorrezko erritmo zehatz bat eduki dezake.</i></p>   |
|                   | <p><b>Inprobisazio ariketa:</b> Froga honek eskala eta arpegioen ezagutza neurtzen du, baita zentzu melodikoa, musikalitatea, inprobisaziorako gaitasuna eta musika modernoaren eremuaren baitan erabiliak diren hainbat estilotako hizkuntza musikalen ezagutza. Hautagaiak inprobisazio bat burutu beharko du zifratu amerikarra duen akorde progresio baten eta honi dagokion audio basean zehar, tribunalak frogaren unean hornituko duena.</p> <p><b>Ebaluaketa:</b> Aintzat hartuko dira eskala eta arpegioen ezagutza, zifratu baten aurrean erakutsitako inprobisatzeko gaitasuna, hala nola hautagaik jo beharreko akonpainamendu pistaren gain erakutsitako egokitasun tinbriko, estilistiko eta erritmikoa. Kontuan edukiko dira bai fraseatzearen zentzutasuna nahiz espresio eta artikulazio teknikak.</p> <p><b>Inprobisazio ariketa:</b> Eskala pentatoniko maior eta minorrak C, A, E, G, F, Bb tonuetan eta posizio ezberdinetan. Eskala maiorra tonu eta posizio guztietan. Inprobisazioak burutzeko erabiliko diren akorde progresioak diatonikoak eta blues-aren berezkoak izango dira (I7, IV7, V7). Aintzakotzat hartuko dira soinu kalitatea eta espresio, artikulazio eta azentuatze teknika ezberdinen erabilerak(ligatuak, vibratoa, ixilguneak, "bending"...), baita dagozkien arpegioenak ere.</p> |



|                       |  |
|-----------------------|--|
|                       | <p><b>Bat-bateko irakurketa:</b> Hautagaiak tribunalak proposatutako partitura baten bat-bateko irakurketa burutu beharko du.</p> <p><b>Ebaluaketa:</b> Aintzat hartuko da partiturak bat-batean irakurtzeko gaitasuna. Kontuan izango dira bai interpretazioaren doitasuna baita pultso irmoa mantentzeko gaitasuna ere.</p> <p><b>Bat-bateko irakurketa ariketa:</b> <i>Zailtasun maila: gehienez hiru alterazio armaduran, 1. posizioan notak, zuri, beltz, eta kortxea figuraziotan zein haien isilunetaz, baita alterazio akzidentalaren bat ere, diatoniko triada batzuk, baita alterazio akzidentalaren bat ere.</i><br/><i>Adibide moduan, zailtasunaren maila William Leavitt-en “Método moderno de guitarra, volumen 1” liburuan dauden estudioak (38 eta 57 orrialde artean).</i></p>   |
| <p>INTERPRETAZIOA</p> | <p><b>Interpretazioa:</b> Hautagai bakoitzak estilo ezberdinetako bi obra aurkeztuko ditu (Rock, Blues, Jazz...) tribunalaren aukeran hauekiko bat interpretatu beharko duelarik. Grabatutako baseak erabil ahal izango dira hautagaiak formatu digitalean ekarrita. Halaber, bere musiko laguntzaileak ekar ahal izango ditu horrela nahi izanez gero. Kasu honetan matrikula inprimakian egoera hau adierazi behar da.</p> <p><b>Ebaluaketa:</b> Aintzat hartuko dira aurkeztutako obren zailtasun eta aniztasun estilistikoa eta, halaber, egokipen estilistiko eta tinbrikoa. Inprobisazioa barne duten obretan kontuan hartuko dira bai honen originaltasuna nahiz egokipen estilistiko eta armonikoa.</p> <p><b>Interpretazio frogarako obra orientagarrien zerrenda:</b></p> <p><b>POP-ROCK:</b> Carlos Santana /Tom Coster: Europa<br/>AC/DC: Back in Black<br/>Hells Bells<br/>Joe Satriani: Starry Night<br/>A Love Eternal</p> <p><b>BLUES:</b> Eric Clapton : Crossroads<br/>Stevie Ray Vaughan: Texas Flood</p> <p><b>JAZZ:</b> Miles Davis: All Blues<br/>Herbie Hancock: Watermelon Man<br/>Chamaleon</p> |



### 3. MAILA

|                          |  |
|--------------------------|--|
| <p>ARIKETA TEKNIKOAK</p> | <p><b>Akonpainamendu ariketa:</b> Froga honek akordeen menperaketa neurtzen du, baita zentzu erritmikoa eta musika modernoaren eremuaren baitan erabiliak diren hainbat estilotako hizkuntza musikalen ezagutza. Hautagaiak baxu linea ezberdinak burutu beharko ditu tribunalak adierazitako akorde progresio eta estiloetan oinarrituta. Honetarako tribunalak froga burutzerako momentuan hainbat estiloetan grabatutako audio baseak (jazz, rock, pop, bossa nova, blues, funk...) hornituko ditu, halaber, dagozkien amerikar zifratua duten gidoiekin batera.</p> <p><b>Ebaluaketa:</b> Aintzat hartuko dira bai zifratu baten aurrean akonpainamenduak inprobisatzeko gaitasuna, zein jo beharreko audioarekiko hautagaiak erakutsitako egokipen estilistiko, erritmiko nahiz tinbrikoa. Interpretazioarekiko doitasun metrikoa eta aniztasuna kontuan hartuko dira.</p>  |
|                          | <p><i>Froga teknikoetarako akordeak: Triada eta koatriada akordeak inbertsio ezberdinetan, tensiodun akordeak(9,11,13) Pop eta Rock erritmo arruntak kortxeadun eta semikortxeadun zatiketaz, hainbat estilotako figura erritmiko arruntak: Soul, Reggae, Ska, Rock &amp; Roll, Blues bitarra eta Shuffle-a, Funk semikortxea zatiketaz, Swing, Bossa nova. Akonpainamendu zarrastrak edota arpegioak erabiliz. "Mute" diapasoiares eskuz eta plektroaren eskuz(Palm mute). Zifratuak derrigorrezko erritmo zehatz bat eduki dezake.</i></p>   |
|                          | <p><b>Inprobisazio ariketa:</b> Froga honek eskala eta arpegioen ezagutza neurtzen du, baita zentzu melodikoa, musikalitatea, inprobisaziorako gaitasuna eta musika modernoaren eremuaren baitan erabiliak diren hainbat estilotako hizkuntza musikalen ezagutza. Hautagaiak inprobisazio bat burutu beharko du zifratu amerikarra duen akorde progresio baten eta honi dagokion audio basean zehar, tribunalak frogaren unean hornituko duena.</p> <p><b>Ebaluaketa:</b> Aintzat hartuko dira eskala eta arpegioen ezagutza, zifratu baten aurrean erakutsitako inprobisatzeko gaitasuna, hala nola hautagaik jo beharreko akonpainamendu pistaren gain erakutsitako egokitasun tinbriko, estilistiko eta erritmikoa. Kontuan edukiko dira bai fraseatzearen zentzutasuna nahiz espresio eta artikulazio teknikak.</p> <p><i>Inprobisazio ariketa: Eskala pentatoniko maior eta minorrak tonu eta posizio guztietan. Eskala maior eta minorra tonu eta posizio guztietan. Eskala maiorra, mixolidia eta dorikoa tonu guztitan posizio guztitan. Inprobisazioak burutzeko erabiliko diren akorde progresioak diatonikoak, modalak eta blues-aren berezkoak izango dira (I7, IV7, V7). Aintzakotzat hartuko dira espresio, artikulazio eta azentuatze teknika ezberdinen erabilerak (ligatuak, vibratoa, ixilguneak, "bending"...), baita akorde bakoitzari dagozkion arpegioenak ere. Era berean, proposatutako progresioekiko erakutsitako egokipen estilistikoa kontuan izango da.</i></p> |



|   |   |
|---|---|
|   | <p><b>Bat-bateko irakurketa:</b> Hautagaiak tribunalak proposatutako partitura baten bat-bateko irakurketa burutu beharko du.</p> <p><b>Ebaluaketa:</b> Aintzat hartuko da partiturak bat-batean irakurtzeko gaitasuna. Kontuan izango dira bai interpretazioaren doitasuna baita pultso irmoa mantentzeko gaitasuna ere.</p> <p><b>Bat-bateko irakurketa ariketa:</b> <i>Zailtasun maila: irakurketa lehenengo eta bigarren posizioan, gehienez hiru alterazio armaduran zuri, beltz, eta kortxea figuraziotan zein haien isilunetaz, konpas barruko ligatura posibleak, triada eta koatriada diatoniko batzuk(zifratu gabe) eta baita alterazio akzidentalaren bat ere.</i></p> <p><i>Adibide moduan, zailtasunaren maila William Leavitt-en “Método moderno de guitarra, volumen 1” liburuan dauden estudioak (53 eta 71 orrialde artean).</i></p>   |
| <p style="text-align: center;">INTERPRETAZIOA</p> | <p><b>Interpretazioa:</b> Hautagai bakoitzak estilo ezberdinetako bi obra aurkeztuko ditu (Rock, Funk, Blues, Jazz...).</p> <p>Grabatutako baseak erabil ahal izango dira hautagaiak formatu digitalean ekarrita. Halaber, bere musiko laguntzaileak ekar ahal izango ditu horrela nahi izanez gero. Kasu honetan matrikula inprimakian egoera hau adierazi behar da.</p> <p><b>Ebaluaketa:</b> Aintzat hartuko dira aurkeztutako obren zailtasun eta aniztasun estilistikoa eta, halaber, egokipen estilistiko eta tinbrikoa. Inprobisazioa barne duten obretan kontuan hartuko dira bai honen originaltasuna nahiz egokipen estilistiko eta armonikoa.</p> <p><b>Interpretazio frogarako obra orientagarrien zerrenda:</b></p> <p><b>POP-ROCK:</b> Led Zeppelin: Stairway to heaven<br/>Metallica: Nothing else matters<br/>Eagles: Hotel California<br/>Deep Purple: Smoke on the Water<br/>Joe Satriani: Always with me,always with you<br/>Jimi Hendrix: Little wing</p> <p><b>BLUES:</b> Eric Clapton :Stormy monday<br/>Stevie Ray Vaughan: Pride and Joy<br/>Robben Ford: Rugged road</p> <p><b>JAZZ:</b> Charlie Parker: Now´s the time<br/>Sonny Rollins: Tenor madness<br/>Herbie Hancock: Cantaloupe island<br/>Maiden Voyage<br/>Horace Silver: Sister sadie<br/>Miles Davis: So What<br/>Steve Erquiaga. Walking street</p> |



#### 4. MAILA

|  |   |
|--|---|
| ARIKETA TEKNIKOAK  | <p><b>Akonpainamendu ariketa:</b> Froga honek akordeen menperaketa neurtzen du, baita zentzu erritmikoa eta musika modernoaren eremuaren baitan erabiliak diren hainbat estilotako hizkuntza musikalen ezagutza. Hautagaiak baxu linea ezberdinak burutu beharko ditu tribunalak adierazitako akorde progresio eta estiloetan oinarrituta. Honetarako tribunalak froga burutzerako momentuan hainbat estiloetan grabatutako audio baseak (jazz, rock, pop, bossa nova, blues, funk...) hornituko ditu, halaber, dagozkien amerikar zifratua duten gidoiekin batera.</p> <p><b>Ebaluaketa:</b> Aintzat hartuko dira bai zifratu baten aurrean akonpainamenduak inprobisatzeko gaitasuna, zein jo beharreko audioarekiko hautagaiak erakutsitako egokipen estilistiko, erritmiko nahiz tinbrikoa. Interpretazioarekiko doitasun metriko eta aniztasunak kontuan hartuko dira.</p> |
|  | <p><i>Froga teknikoetarako akordeak: Triadak eta koatriadak inbertsio ezberdinetan. Pop eta Rock erritmo arruntak kortxeadun eta semikortxeadun zatiketaz, hainbat estilotako figura erritmiko arruntak: Soul, Reggae, Ska, Rock &amp; Roll, Blues bitar eta hirutarra, Shuffle-a, Funk semikortxea zatiketaz, Swing, Bossa nova. Akonpainamendu zarrastrak edota arpegioak erabiliz. "Mute" diapasoaren eskuz eta plektroaren eskuz(Palm mute). Zifratuak derrigorrezko erritmo zehatz bat eduki dezake. Figura sinkopatuak.</i></p>   |
|  | <p><b>Inprobisazio ariketa:</b> Froga honek eskala eta arpegioen ezagutza neurtzen du, baita zentzu melodikoa, musikalitatea, inprobisaziorako gaitasuna eta musika modernoaren eremuaren baitan erabiliak diren hainbat estilotako hizkuntza musikalen ezagutza. Hautagaiak solo motako inprobisazio bat burutu beharko du, zifratu amerikarra duen akorde progresio baten eta honi dagokion audio basean zehar, tribunalak frogaren unean hornituko duena.</p> <p><b>Ebaluaketa:</b> Aintzat hartuko dira eskala eta arpegioen ezagutza, zifratu baten aurrean erakutsitako inprobisatzeko gaitasuna, hala nola hautagaik jo beharreko akonpainamendu pistaren gain erakutsitako egokitasun tinbriko, estilistiko eta erritmikoa. Kontuan edukiko dira bai fraseatzearen zentzutasuna nahiz espresio eta artikulazio teknikak.</p>  |
|  | <p><i>Inprobisazio ariketa: Eskala pentatoniko maior eta minorrak tonu eta posizio guztietan. Eskala maiorra, mixolidia ,dorikoa eta eoleo edo minor naturala tonu guztitan posizio guztitan. IIm7-V7-Imaj7 estekak. Inprobisazioak burutzeko erabiliko diren akorde progresioak diatonikoak, modalak eta blues-aren berezkoak izango dira (I7, IV7, V7). Aintzakotzat hartuko dira espresio, artikulazio eta azentuatze teknika ezberdinen erablipena(ligatuak, vibratoa, ixilguneak, "bending"...), baita akorde bakoitzari dagozkion arpegioenak ere. Era berean, proposatutako progresioekiko erakutsitako egokipen estilistikoa kontuan izango da.</i></p>   |
| <p><b>Bat-bateko irakurketa:</b> Hautagaiak tribunalak proposatutako partitura</p> |   |



|                       |   |
|-----------------------|---|
|                       | <p>baten bat-bateko irakurketa burutu beharko du.</p> <p><b>Ebaluaketa:</b> Aintzat hartuko da partiturak bat-batean irakurtzeko gaitasuna. Kontuan izango dira bai interpretazioaren doitasuna baita pultso irmoa mantentzeko gaitasuna ere.</p> <p><b>Bat-bateko irakurketa ariketa:</b> Zailtasun maila: irakurketa lehenengo eta bigarren posizioan, gehienez hiru alterazio armaduran zuri, beltz, eta kortxea figuraziotan zein haien isilunetaz, konpas barruko ligatura posibleak, triada eta koatriada diatoniko batzuk(zifratu gabe) eta baita alterazio akzidentalak bat ere. Adibide moduan, zailtasunaren maila William Leavitt-en “Método moderno de guitarra, volumen 1” liburuan dauden estudioak (38 eta 57 orrialde artean).</p>  |
| <p>INTERPRETAZIOA</p> | <p><b>Interpretazioa:</b> Hautagai bakoitzak estilo ezberdinetako hiru obra aurkeztuko ditu (Rock, Funk, Blues, Jazz...) tribunalaren aurrean hauetako bi interpretatu beharko dituelarik. Bat epaimahaiak aukeratu du, eta haietako bat jazz errepertorioko chord-melody gitarra bakarlari estiloko moldaketa izan beharko duelarik, akorde progresioan zeharkako inprobisazioa barne.</p> <p>Grabatutako baseak erabil ahal izango dira hautagaiak formatu digitalean ekarrita. Halaber, bere musiko laguntzaileak ekar ahal izango ditu horrela nahi izanez gero. Kasu honetan matrikula inprimakian egoera hau adierazi behar da.</p> <p><b>Ebaluaketa:</b> Aintzat hartuko dira aurkeztutako obren zailtasun eta anitztasun estilistikoa eta, halaber, egokipen estilistiko eta tinbrikoa. Inprobisazioa barne duten obretan kontuan hartuko dira bai honen originaltasuna nahiz egokipen estilistiko eta armonikoa.</p> <p><b>Interpretazio frogarako obra orientagarrien zerrenda:</b></p> <p><b>BLUES, POP, ROCK:</b></p> <p>John Petrucci(Liquid Tension) State of Grace<br/>Eric Clapton:Layla<br/>Carlos Santana:I love you much too much<br/>Deep Purple: Higway star<br/>Gary Moore: Still got the blues<br/>Gary Moore: The Loner<br/>Jimi Hendrix:Red House<br/>Stevie Ray Vaughan: Lenny<br/>Jeff Beck: Cause we ended as lovers</p> <p><b>JAZZ:</b></p> <p>Joe Henderson: Recordame<br/>Sonny Rollins: Doxy<br/>Kenny Dorham: Blue Bossa<br/>Horace Silver: Song for my father</p> |





*Melodia eta akonpainamendudun gitarra bakarlari moldaketak interpretatzeko obrak: (Temaren interpretazioaz gain progresio armoniakoan oinarritutako inprobisazioa burutu beharko da).*

Duke Ellington: Satin doll

Do nothin´till you hear from me

Don´t get around much anymore

Prévert y Kosma: Autumn leaves

Errol Garner: Misty



## 5. MAILA

|                   |  |
|-------------------|--|
| ARIKETA TEKNIKOAK | <p><b><u>Akonpainamendu ariketa:</u></b> Froga honek akordeen menperaketa neurtzen du, baita zentzu erritmikoa eta musika modernoaren eremuaren baitan erabiliak diren hainbat estilotako hizkuntza musikalen ezagutza. Hautagaiak baxu linea ezberdinak burutu beharko ditu tribunalak adierazitako akorde progresio eta estiloetan oinarrituta. Honetarako tribunalak froga burutzerako momentuan hainbat estiloetan grabatutako audio baseak (swing, bebop, rock, pop, blues, bossa nova, latin, funk...) hornituko ditu, halaber, dagozkien amerikar zifratua duten gidoiekin batera. Zifratuak derrigorrezko figura erritmikoak eduki ditzake.</p> <p><b><u>Ebaluaketa:</u></b> Aintzat hartuko dira bai zifratu baten aurrean akonpainamenduak inprobisatzeko gaitasuna, zein jo beharreko audioarekiko hautagaiak erakutsitako egokipen estilistiko, erritmiko nahiz tinbrikoa. Interpretazioarekiko doitasun metriko eta anitztasunak kontuan hartuko dira.</p>  |
|                   | <p><b><u>Froga teknikoetarako akordeak:</u></b> <i>Triadak eta koatriadak inbertsio ezberdinetan, tentsiodun hainbat disposizio (bederatzidun, hamaikadun eta hamairudun bitarteekin, hau da, 9, b9, #9, #11, 13, b13).</i><br/><i>Pop eta Rock erritmo arruntak kortxeadun eta semikortxeadun zatiketaz, hainbat estilotako figura erritmiko arruntak: Soul, Reggae, Ska, Rock &amp; Roll, Blues bitar eta hirutarra, Shuffle-a, Funk semikortxea zatiketaz, Swing, Rhythm &amp; Changes, Bossa nova, Latin. Akonpainamendu zarrastrak edota arpegioak erabiliz. "Mute" diapasoiaeren eskuz eta plektroaren eskuz(Palm mute). Zifratuak derrigorrezko erritmo zehatz bat eduki dezake. Figura sinkopatuak</i></p>   |
|                   | <p><b><u>Inprobisazio ariketa:</u></b> Froga honek eskala eta arpegioen ezagutza neurtzen du, baita zentzu melodikoa, musikalitatea, inprobisaziorako gaitasuna eta musika modernoaren eremuaren baitan erabiliak diren hainbat estilotako hizkuntza musikalen ezagutza. Hautagaiak solo motako inprobisazio bat burutu beharko du, zifratu amerikarra duen akorde progresio baten eta honi dagokion audio basean zehar, tribunalak frogaren unean hornituko duena.</p> <p><b><u>Ebaluaketa:</u></b> Aintzat hartuko dira eskala eta arpegioen ezagutza, zifratubaten aurrean erakutsitako inprobisatzeko gaitasuna, hala nola hautagaik jo beharreko akonpainamendu pistaren gain erakutsitako egokitasun tinbriko, estilistiko eta erritmikoa. Kontuan edukiko dira bai fraseatzearen zentzutasuna nahiz espresio eta artikulazio teknikak.</p> <p><b><u>Inprobisazio ariketak:</u></b> <i>Eskala pentatoniko maior eta minorrak tonu eta posizio guztietan. Eskala maiorra, mixolidia, dorikoa, eoleo edo minor naturala, minor armonikoa eta minor melodikoa, tonu guztitan posizio guztitan. IIm7-V7-Imaj7 eta IIm7b5-V7-Im7 estekak.</i><br/><i>Inprobisazioak burutzeko erabiliko diren akorde progresioak diatonikoak, dominante sekundariodun eta II minor erlatibodunak, hedadura dominanteak eta elkartruke modalak, kontestu modalak, jazz-blues-a eta rhythm &amp; changes-aren berezkoak direnak izango dira, hala nola jazz</i></p> |



|                       |   |
|-----------------------|---|
|                       | <p><i>estandarren progresio tipikoak. Aintzakotzat hartuko dira estilo bakoitzari dagozkien teknika espresibo ezberdinen erabilpena (legato, vibrato, artikulazio eta azentuazioak), baita akorde bakoitzari dagozkion arpegioenak ere. Era berean, proposatutako progresioekiko erakutsitako egokipen estilistiko eta tinbrikoak kontuan edukiko dira.</i></p> <p><b>Bat-bateko irakurketa:</b> Hautagaiak tribunalak proposatutako partitura baten bat-bateko irakurketa burutu beharko du.</p> <p><b>Ebaluaketa:</b> Aintzat hartuko da partiturak bat-batean irakurtzeko gaitasuna. Kontuan izango dira bai interpretazioaren doitasuna baita pultso irmoa mantentzeko gaitasuna ere.</p> <p><b>Bat-bateko irakurketa ariketa:</b> Zailtasun maila: irakurketa lehenengo, bigarren, hirugarren eta laugarren posizioan, gehienez lau alterazio armaduran zuri, beltz, eta kortxea figuraziotan zein haien isilunetaz, konpas barruko ligatura posibleak eta baita alterazio akzidentalaren bat ere. Triadak eta koatriadak diatonikoak eta ez-diatonikoak (zifratu gabe). Adibide moduan, zailtasunaren maila William Leavitt-en “Método moderno de guitarra, volumen 1” liburuan dauden estudioak (113 eta 124 orrialde artean).</p> |
| <p>INTERPRETAZIOA</p> | <p><b>Interpretazioa:</b> Hautagai bakoitzak estilo ezberdinetako hiru obra aurkeztuko ditu (Rock, Funk, Blues, Jazz...) tribunalaren aurrean hauetako bi interpretatu beharko dituelarik (bat epaimahaiak aukeratuko du), eta haietako bat jazz errepertorioko chord-melody gitarra bakarlarik estiloko moldaketa izan beharko duelarik, akorde progresioan zeharkako inprobisazioa barne.</p> <p>Beste obrarako grabatutako baseak erabil ahal izango dira hautagaiak formatu digitalean ekarrita. Halaber, bere musiko laguntzaileak ekar ahal izango ditu horrela nahi izanez gero. Kasu honetan matrikula inprimakian egoera hau adierazi behar da.</p> <p><b>Ebaluaketa:</b> Aintzat hartuko dira aurkeztutako obren zailtasun eta aniztasun estilistikoa eta, halaber, egokipen estilistiko eta tinbrikoa. Inprobisazioa barne duten obretan kontuan hartuko dira bai honen originaltasuna nahiz egokipen estilistiko eta armonikoa.</p> <p><b>Interpretazio frogarako obra orientagarrien zerrenda:</b></p> <p><b>BLUES, POP, ROCK:</b><br/>         Joe Satriani: Surfing with the alien<br/>         Joe Satriani: Summer song<br/>         John 5: Salt Creek<br/>         Eric Johnson: Cliffs of dover</p>                   |



**JAZZ:**

Duke Ellington: In a sentimental mood  
Pat Metheny: Facing Wes  
Rodgers/Hart: My funny Valentine  
Mancini: The days of wine and roses  
Bobby Timmons: Moanin

*Melodia eta akonpainamendudun gitarra bakarlari  
moldaketak interpretatzeko obrak: (Temaren interpretazioaz gain  
progresio armoniakoan oinarritutako inprobisazioa burutu beharko da).*

Jobim: The girl from Ipanema  
Duke Ellington: In a sentimental mood  
Mancini: The days of wine and roses  
Klemmer/Lewis: Just friends



## 6. MAILA

|                   |  |
|-------------------|--|
| ARIKETA TEKNIKOAK | <p><b>Akonpainamendu ariketa:</b> Froga honek akordeen menperaketa neurtzen du, baita zentzu erritmikoa eta musika modernoaren eremuaren baitan erabiliak diren hainbat estilotako hizkuntza musikalen ezagutza. Hautagaiak baxu linea ezberdinak burutu beharko ditu tribunalak adierazitako akorde progresio eta estiloetan oinarrituta. Honetarako tribunalak froga burutzerako momentuan hainbat estiloetan grabatutako audio baseak (swing, bebop, rock, pop, blues, bossa nova, latin, funk...) hornituko ditu, halaber, dagozkien amerikar zifratua duten gidoiekin batera. Zifratuak derrigorrezko figura erritmikoak eduki ditzake.</p> <p><b>Ebaluaketa:</b> Aintzat hartuko dira bai zifratu baten aurrean akonpainamenduak inprobisatzeko gaitasuna, zein jo beharreko audioarekiko hautagaiak erakutsitako egokipen estilistiko, erritmiko nahiz tinbrikoa. Interpretazioarekiko doitasun metriko eta aniztasunak kontuan hartuko dira.</p>   |
|                   | <p><i>Froga teknikoetarako akordeak: Triada eta koatriada arpegioak inbertsio ezberdinetan, jarraipen armonikoaz inbertsio guztitan. Tentsiodun disposizioak: 9, b9, #9, #11, 13, b13, b5, #5, alt. Pop eta Rock erritmo arruntak kortxeadun eta semikortxeadun zatiketaz, hainbat estilotako figura erritmiko arruntak: Soul, Reggae, Ska, Rock &amp; Roll, Blues bitar eta hirutarra, Shuffle-a, Funk semikortxea zatiketaz, Swing, Rhythm &amp; Changes, Bossa nova, Bebop, Fusion, Latin. Akonpainamendu zarrastrak edota arpegioak erabiliz. "Mute" diapasoiaeren eskuz eta plektroaren eskuz(Palm mute). Zifratuak derrigorrezko erritmo zehatz bat eduki dezake. Figura sinkopatuak.</i></p>  |
|                   | <p><b>Inprobisazio ariketa:</b> Froga honek eskala eta arpegioen ezagutza neurtzen du, baita zentzu melodikoa, musikalitatea, inprobisaziorako gaitasuna eta musika modernoaren eremuaren baitan erabiliak diren hainbat estilotako hizkuntza musikalen ezagutza. Hautagaiak solo motako inprobisazio bat burutu beharko du, zifratu amerikarra duen akorde progresio baten eta honi dagokion audio basean zehar, tribunalak frogaren unean hornituko duena.</p> <p><b>Ebaluaketa:</b> Aintzat hartuko dira eskala eta arpegioen ezagutza, zifratubaten aurrean erakutsitako inprobisatzeko gaitasuna, hala nola hautagaik jo beharreko akonpainamendu pistaren gain erakutsitako egokitasun tinbriko, estilistiko eta erritmikoa. Kontuan edukiko dira bai fraseatzearen zentzutasuna bai espresio eta artikulazio teknikak, nahiz jotze tekniko maila.</p> <p><i>Inprobisazio ariketak: Eskala pentatoniko maior eta minorrak tonu eta posizio guztietan. Eskala maiorra, mixolidia, dorikoa, eoleo edo minor naturala, minor armonikoa eta minor melodikoa, b9-b13dun mixolidia, b7dun lidia, tonu guztietan zazpi posiziotan. IIm7-V7-Imaj7 eta IIm7b5-V7-Im7 estekak. Kromatismo eta aproximazioak. Inprobisazioak burutzeko erabiliko diren akorde progresioak diatonikoak bai modu maior edo minorrean, dominante sekundariodun eta II minor erlatibodunak,</i></p> |



|                       |  |
|-----------------------|--|
|                       | <p><i>hedadura dominanteak eta elkartruke modalak. Izan litezke ere progresio modalak, jazz-blues-a eta rhythm &amp; changes-aren berezkoak direnak, modulazioak, hala nola jazz estandarren progresio tipikoak.</i></p> <p><i>Aintzakotzat hartuko dira estilo bakoitzari dagozkien teknika espresibo ezberdinen erabilpena (legato, vibrato, bending, artikulazio eta azentuazioak), baita adierazitako armoniei egokitutako eskala eta arpegioena ere. Fraseatzearen zentzua, aberastasuna eta doitasun metrikoa kontuan izango dira. Inprobisazioan kromatismo eta aproximazioen erabilera zuzena positiboki balioztatuko da. Era berean, proposatutako progresioekiko erakutsitako egokipen estilistiko eta tinbrikoak kontuan edukiko dira.</i></p> <p><b>Bat-bateko irakurketa:</b> Hautagaiak tribunalak proposatutako partitura baten bat-bateko irakurketa burutu beharko du.</p> <p><b>Ebaluaketa:</b> Aintzat hartuko da partiturak bat-batean irakurtzeko gaitasuna. Kontuan izango dira bai interpretazioaren doitasuna baita pultso irmoa mantentzeko gaitasuna ere.</p> <p><b>Bat-bateko irakurketa ariketa:</b> <i>Zailtasun maila: irakurketa lehenengo, bigarren, hirugarren, laugarren eta bostgarren posizioan. Gehienez lau alterazio armaduran zuri, beltz, puntudun zuri, puntudun beltza, kortxea figuraziotan zein haien isilunetan, konpas barruko ligaturak, sinkopak, hainbat triada eta koatriada diatonikoak, elkartruke modal eta hedadura dominanteak(zifratu gabe), eta hainbat alterazio akzidental.</i></p> <p><i>Adibide moduan, zailtasunaren maila William Leavitt-en “Melodic Rhythms for guitar” liburuan dauden estudioak (1etik 7tara estudioak)</i></p> <p>.</p> |
| <p>INTERPRETAZIOA</p> | <p><b>Interpretazioa:</b> Hautagai bakoitzak estilo ezberdinetako hiru obra aurkeztuko ditu (Rock, Funk, Blues, Jazz...) tribunalaren aurrean hauetako bi interpretatu beharko dituelarik(bat epaimahaiak aukeratuko du), eta haietako bat jazz errepertorioko chord-melody gitarra bakarlari estiloko moldaketa izan beharko duelarik, akorde progresioan zeharkako inprobisazioa barne.</p> <p>Beste obrarako grabatutako baseak erabil ahal izango dira hautagaiak formatu digitalean ekarrita. Halaber, bere musiko laguntzaileak ekar ahal izango ditu horrela nahi izanez gero. Kasu honetan matrikula inprimakian egoera hau adierazi behar da.</p> <p><b>Ebaluaketa:</b> Aintzat hartuko dira aurkeztutako obren zailtasun eta aniztasun estilistikoa eta, halaber, egokipen estilistiko eta tinbrikoa. Inprobisazioa barne duten obretan kontuan hartuko dira bai honen originaltasuna nahiz egokipen estilistiko eta armonikoa.</p> <p><b>Interpretazio frogarako obra orientagarrien zerrenda:</b></p> <p><b>BLUES, POP, ROCK:</b><br/>     John Petrucci: Glasgow kiss</p>   |



Joe Satriani: Satch Boogie  
Flying in a blue dream  
Midnigth

Eric Johnson: Manhattan

**JAZZ:**

Wes Montgomery: West coast blues

Charlie Parker: Anthropology

Duke Ellington: Caravan

Miles Davis: Solar

Sonny Rollins: Oleo

Bronislau Kaper: On green Dolphin Street

Hammerstein/Kern: All the things you are

*Melodia eta akonpainamendudun gitarra bakarlari moldaketak interpretatzeko obrak: (Temaren interpretazioaz gain progresio armoniakoan oinarritutako inprobisazioa burutu beharko da).*

Bronislau Kaper: On green Dolphin Street

Paul Desmond: Take five

Duke Ellington: Caravan

Hammerstein/Kern: All the things you are